

ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA



AUTOEBALUAZIORAKO GIDA

HAURREN ESKUBIDEETATIK HEZKUNTZA ALDATUZ

Zuzendaritza
Nacho Guadix

Edizioa
Oscar Belmonte
Amaya López de Turiso
Andrés Muñoz Rico

Ikerketa-taldea
Lleidako Unibertsitatea
M. Àngels Balsells
Jordi Coiduras
Carles Alsinet
Aida Urrea

Argazkiak
©UNICEF España/2012/Ajay Hirani

Diseinu grafikoa
Rex Media SL



Sarrera

Haurren eskubideak ezagutzen al dira edo bizi al dira gure ikastetxeetan? Ba al du zentzurik haurren eskubideak curriculumeko eduki bat baino gehiago izateak? Gaiarekin kezkatuta dagoen irakasle kopuru handi batekin izaten ari garen solasaldietan maiz agertzen diren galderak dira. Nolanahi ere, horiek biziko badira, ezagutu egin behar dira, transmisio-elementu gisa duten balioa ikusi behar da eta ikastetxearen antolamendu-elementuetan garatu behar dira. Horrela, bi dimentsio horiek koherente egingo dira. Xede horrek hezkuntza-erkidego osoaren konpromisoa eduki beharko luke, askotariko motibazioak dituen kolektibo dinamiko eta heterogeneo osoaren konpromisoa.

Nazio Batuetako 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena da historian gehien berretsi den giza eskubideetako ituna. Gure ikasleengan –hemezortzi urte betetzen dituzten arte–, eraginik handiena duen ituna da, eta eskubide guztien artean eskubide horretan, hain zuzen ere, dute gure ikasleek protagonismorik handiena. Eskubidearen eta arduraren ikuspegia eta hiritartasun globalaren ikuspegia hezkuntza aldatzen lagun dezaketen tresna indartsuak dira, betiere gizarte gisa gure gain hartu ditugun konpromisoen mailan.

Entzute aktiboko, ikerketako eta gogoetako denboraldi baten ondoren, honako gida hau aurkezten dizuegu bide honi ekin nahi dioten ikastetxeei laguntzeko. Gida honen helburua da hezkuntza-erkidegoaren osotasunaren inplikazioarekin Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena eskolaren esparru guztietan txertatu nahi duten ikastetxeei laguntzea, hau da hiritar arduratsuak ezaugarri izan nahi dituzten ikastetxeei laguntzea. Hasierako autoebaluazioa eta diagnostikoa egitera animatzen zaituztegu. Horrela, posible izango da haurren eskubideak irakaskuntzako/ikaskuntzako jardueren mende dauden eredu batetik eskubide horiek ikastetxeko bizitzaren motor bihurtzen diren eredu holistikoago baterantz bilakatzea. Gauzak horrela, zure ikastetxean ezagutzen al dira edo bizi al dira haurren eskubideak?

■ Ikerketa-proiektua

2010ean, UNICEF Espainiako Batzordeak ikerketa-proiektu bat jarri zuen abian, Lleidako Unibertsitateko Pedagogia eta Psikologia Sailarekin batera, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako eskola-antolamenduan txerta dadin sustatzeko.

Ikerketa horren bitartez, lehenik, eskola-antolamenduak honako helburu hauetarako dituen aukerak eta oztupoak diagnostikatu nahi izan ditugu: a) Ikasleek ikastetxeetan duten parte-hartzea sustatzeko; b) Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean onartzen diren balioak erraztuko dituen eskola-giroa sortzeko; c) Eskola-kontseiluetan ordezkaturik dauden kolektibo guztiei Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena aurkezteko; eta d) Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ikastetxearen hezkuntza-proiektuan txertatzeko. Bigarren, eskola-kontseiluetan ordezkaturik dauden kolektiboetako bakoitzak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren arloan dituen prestakuntza-beharrak identifikatu nahi izan ditugu. Eta, azkenik, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena ikastetxeen antolamenduan sartzeko baliagarriak izango diren baliozko ideia berriak hartu nahi izan ditugu.

Horretarako, 13 eztabaida-talde sortu ziren, 124 pertsonako azterketa-laginarekin –tartean irakasleak, gurasoak eta ikasleak ziren–. Horrez gain, 2.300 haur eta nerabek erantzun zioten haurren eskubideei buruzko haien ikuspegia ezagutzeko galdera-sorta bati.



Hezkuntza-proiektuan zergatik konprometitu haurren eskubideekin?

Irakaskuntzan, haurren eskubideak printzipio etiko eta jokabide-arau unibertsal gisa aintzat hartzen direnean, behin betiko aldatzen da ikastetxearen errealitatea:

- >> Ikasleen autoestimua hobetzen da.
- >> Dibertsitatearen aurrean jarrera positiboa hartzeaz gain, aurreiritziak gutxitzen dira.
- >> Ikasleen jokabideak eta euren arteko harremanak hobetzen dira.
- >> Irakasleek atseginez betetzen dute haien lana.
- >> Hezkuntza-erkidegoa osatzen duten kideen arteko bat-egitea eta onarpena dakar.
- >> Inplikazio hori ikasleen beste hezkuntza-esparru batzuetara hedatzen da, emaitza akademikoak hobetuz.



Irakasleentzako alde onak. Hezkuntza-eskariak integratuta

Irakaskuntzaren jardunak berak eta ikastetxeen gero eta autonomia handiagoak areagotu egin dute gure ikasleen prestakuntzaren arloko gizarte-eskaera anitzei behar bezala erantzuteko erronka. Eskaera horiek askotarikoak dira, eta, osotasunean, loturarik gabekoak; gainera, askotan, kontra esanean azaltzen dira. Haurren eskubideen ikuspegia balio handiko ardatz egituratzaile bihurtzen da; izatez:

- >> Haurren eskubideen inguruko bat-etortze unibertsalean oinarritzen da, desadostasun ideologiko baztertzailerak gaindi daitezen erraztuz.
- >> Prestakuntza-eskari ugariak biltzen eta egituratzen ditu, eta oinarri axiologikoa ematen die.
- >> Berariazko gatazkak ebazteko lagungarria den lan-esparru malgua eta sakona eskaintzen du.

Familientzako onura. Hezkuntza integralaren garrantzia

Gure seme-alabentzat nahi dugun hezkuntzaren funtsezko baldintzetako bat da hezkuntza bera integrala izatea, hau da, ikaslearen nortasunaren dimentsio eta adierazpen guztiei arreta jarriko dien hezkuntza izatea. Haurrei eta nerabeei osorik garatzeko beharrezko trebetasunak eta ezagutzak zuzkitu beharko dizkie hezkuntzak. Ildo horretan, haurren eskubideen ikuspegia irakaskuntzaren balio handiko ardatz bihurtzen da; izatez:

- >> Gazteak beren eskubideez zein ardurez jabetzera bultzatzen ditu.
- >> Funtsezko hezkuntza-balioen inguruko prestakuntza-eskaera ugariak biltzen eta egituratzen ditu.
- >> Gizartean inplikazio aktiboa sustatzen du eta parte-hartze demokratikoko ohiturak garatzen ditu.
- >> Berariazko gatazkak ebazteko lagungarria den lan-esparru malgua eta sakona eskaintzen du.

■ Eskubideak ekintzan

Gure eskolan haurren eskubideen ikuspegia aintzat hartzeak ez du esanahi eskubide horiek buruz ikastea eskatuko duen beste irakasgai bat izango dugula. Garrantzitsuena ez da eskubideak goitik behera jakitea, baizik eta eskubide horiek betetzeak zenbait alderditan zer eragin duen ulertzea: gure ikaskuntzaren eguneroko jardunean, gure atsedendietan, eta eskola-erkidegoa osatzen duten pertsonekin ditugun harremanetan. Batzuetan konturatzen ez bagara ere, eskola ez da historia edo matematikak ikasten ditugun lekua soilik. Ikasten ikasteko lekua ere bada, baita elkarbizitzeko trebetasunak hobetzen ditugun lekua eta munduko hiritar izateko prestatzen garen lekua ere. Haurren eskubideek, beraz, autonomo eta arduratsu izaten eta gurekin zein gainerako pertsonekin eta gure ingurunearekin begirunetsu izaten laguntzen digute.



Zergatik konprometitu

Gure konpromisoa

Haurren eskubideetan oinarritutako hezkuntzak haur eta nerabe guztien eskubideak betetzea sustatzen du, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak ezartzen duen moduan. Era berean, betebeharren titularren gaitasuna garatzen du, hau da, haien egitekoekin eskubide horiek errespetatzeko, babesteko eta betetzeko duten gaitasuna garatzen du. Hezkuntzaren esparruan haurren eskubideekin konprometitzeak honako hau dakar:

1

Ikasleek beren burua eta gainerakoak duintasuna duten pertsonatzat har ditzaten sustatzea, hau da, eskubideak eta ardurak dituzten pertsonatzat hartzea.

2

Adingabearen nortasuna, gaitasunak eta ahalmen mental eta fisikoak ahalik eta gehien garatzearekin konprometitzea.

3

Mundu osoan giza eskubideak betetzearekin kezkatuta egongo diren hiritarren sorrera sustatzea.

5

Haurrek eta nerabeek informazioaren, adierazpenaren eta parte-hartzearen askatasunaz goza dezaten sustatzea.

4

Hezitzaileek, familiek eta eskola-erkidegoak, oro har, haurrak eta nerabeak haien eskubideen eta arduren jardunean gida eta orienta ditzaten sustatzea, betiere haien ahalmenen barruan eta, une oro, adingabearen interes gorena aintzat hartuta.



6

Hautatutako erlijioa edo sinesmenak edukitzeko edo bere egiteko askatasuna eta erlijio edo sinesmen horiek, jendaurrean zein modu pribatuan, adierazteko adingabeak duen askatasuna errespetatzea.

7

Berdintasuna, pertsonen duintasunarekiko errespetua, osasuna eta bizikidetasun baketsua erraztuko duen pertsonen arteko harreman-ingurunea sustatzea.

8

Tratu txarren, irainen eta sexu-gehegikerien aurkako babesa bermatzeko beharrezko arauzko, antolamenduko eta hezkuntzako neurriak hartzea, eta edonolako kalte fisikoak edo mentalak aurreikustea. Era berean, haurrek inguruan agertzen zaizkien arriskuak ezagut ditzaten sustatzea eta haurren autobabeserako neurrien garapena sustatzea.

9

Kulturaren, erlijioaren, hizkuntzaren, sexuaren edo beste arrazoi baten ondoriozko edozein diskriminazioren aurkako babesa bermatzea.

10

Adinaren berezko jolasez eta olgeta-jarduerez gozatzeko eta kultura-bizitzan, arteetan eta ingurumenean parte hartzeko haurraren eskubidea sustatzea.

Zer egin dezakezue?

Gida honen bidez, ikastetxean haurren eskubideekiko konpromisoaren inguruan autoebaluazioko eta diagnostikoko prozesu bati taldean ekitea proposatzen dizuegu. Ikastetxean edo institutuan gauzatzen diren politikei eta jardunbideei buruzko gogoeta egin dezazuen planteatzen dizuegu.

Alabaina, modu autonomoan, edo UNICEFen laguntzarekin, ezar dezakezuen transformazio- eta hobekuntza-prozesu baten abiapuntua baino ez da.

HASIERAKO AUTOEBALUAZIOKO

1. AUTOEBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Antolamendua:

- 5 lan-talde.
- Talde bakoitzeko bilera 1

Zereginak:

- Galdera-sortak betetzea.
- Hobekuntza-proposamenak adostea.
- Autodiagnostikoko bilerarako taldeko eleduna izendatzea.

Tresnak:

- Galdera-sortak.



ETA DIAGNOSTIKOKO PROZESUAREN MAPA

aukerakoa

2. AUTODIAGNOSTIKOA ETA ERABAKIAK HARTZEA

Antolamendua:

- Koordinazio-talde 1
- Bilerak 1

Zereginak:

- Galdera-sorten emaitzak ebaluatzea.
- Zer esparrutan lan egin adostea (taldeek erabakitakoan oinarrituta).
- Autodiagnostikoko bilerarako taldeko eleduna izendatzea.

Tresnak:

- Diagnostikoko termometroa.
- Galdera-sortak.

- Zuzendaritza-taldea UNICEFekin harremanetan jartzea.
- UNICEFek proiektua garatzeko moduari buruzko aholkuak ematea.
- Proposatutako hobekuntzak gauzatzeko konpromisoa hartzea ikastetxeak.

Ebalua ezazu zure ikastetxea

Nola gauzatu hasierako autoebaluazioko eta diagnostikoko prozesua?

Zuzendaritza-taldeak UNICEFek abiarazi duen proposamenaren azterketari ekin beharko dio, eta, horretarako, gida honen azterketa hartuko du aintzat, baita denbora-dedikazioari eta ahaleginei dagokionez gida honek eskatzen duen inplikazioaren azterketa ere. Zuzendaritza-taldeko kideek hasierako fase hori gidatzea iradokitzen dizuegu, betiere materialak eta informazioa hezkuntza-erkidego osora hedatuta.

Irakasleek, ikasleek, familiek eta ikastetxeko gainerako kideek hasierako autoebaluazioa eta diagnostikoa egiteko interesa dutenean, honako lan-talde hauek ezartzea gomendatzen dizuegu:

- **1. taldea:** zuzendaritza-taldeak, ziklo eta urratseko koordinatzaileek, saileko zuzendariak eta orientazio-taldeetako kideek osatua.
- **2. taldea:** tutoreek osatua.
- **3. taldea:** parte hartu nahi duten familiek osatua.
- **4. taldea:** interesa duten ikasleek osatua.
- **5. taldea:** interesa izan dezaketen ikastetxeko beste langile batzuek osatua, hala nola administrazio eta zerbitzuetako langileek, udal-arduradunak, jantokiko eta eskolaz kanpoko ekintzetako teknikariek, eta abar.

Talde horretako bakoitzak, lan-bilera batean, modu autonomoan egin beharko du hasierako autoebaluazioa eta diagnostikoa. Lan-bilera horretan, dagokien onlineko galdera-sortako galderei erantzun beharko diete, eta garrantzitsuen iruditzen zaizkien arloetan hobekuntza-proposamenak egin beharko dituzte.

Talde horietako bakoitzean ordezkari bat hautatu beharko da, bigarren bilera batera bertara dadin. Bigarren bilera horretan, taldeek egindako diagnostikoaren emaitzak bateratuko dira, eta hobekuntza-proposamen bateratua egingo da, lan-taldeetan erabakitakoa abiapuntu izanik.





Zer gomendio egiten dizuegu?

Gida honekin, ikastetxean jarraitzen dituzuen hezkuntzaren arloko politikei eta jardunei buruzko gogoeta-prozesua egitera gonbidatzen zaituztegu. Ez da azterketa bat, haurren eskubideen aldeko hobekuntzarako proposamen bat baizik. Ebaluazio horren emaitzek ez dute inola ere ekarriko ikastetxeak egiten duenari buruzko UNICEFen ziurtapen bat.

Jarduera hau ahalik eta onuragarriena izan dadin, honako gomendio hauek egiten dizkizuegu:

- Parte-harteari behar besteko garrantzia eman behar zaio. Saia zaitzete ahalik eta pertsona kopururik handienak parte har dezan. Ahalegin zaitzete eskola-erkidego osoaren artean jarduera hedatzen eta dinamizatzen. Komeni da 5 taldeek egitea autoebaluazioa eta diagnostikoa, baina horietakoren batek egiten ez badu ere, jarrai daiteke jarduerarekin.
- Begirunez joka ezazue talde bakoitzak egindako lanarekin, eta saia zaitzete hobekuntza-proposamenak guztien artean adosten, eskola-erkidegoak hartutako erabakien adierazgarriak izan daitezen.
- Izan zaitzete errealistak hobekuntza-proposamenetan, eta eman iezaezue lehentasuna premiazkoen iruditzen zaizkizuen horiei. Proposamenak garrantziaren arabera eta denboraren arabera antolatzen dituen hobekuntza-ibilbidea lantzea gomendatzen dizuegu.

Ebalua ezazu zure ikastetxea

Zer eskaintzen dizue UNICEFek?

Hasierako autoebaluazioko eta diagnostikoko lana egiteko eta hobekuntza-proposamena egiteko hainbat tresna eskaintzen dizuegu:

- **Galdera-sorta:** lan-talde bakoitzerako galdera-sortaren bertsio bat. Online formatuan dago eta kolektiboetako bakoitzak lehen bileran bete beharko du.
- **Hobekuntza-proposamenak:** talde bakoitzak hautatu beharko du zer aldaketa egin ikastetxean.
- **Diagnostikoko termometroa:** galdera-sorten emaitzekin, taldeetako bakoitzak eskola-bizitzako hainbat esparruri buruz zer iritzi duen ikus dezakezue. Online bertsioan dago.
- **Hobekuntzako amaierako dokumentua:** talde bakoitzak egindako hobekuntza-proposamenetan oinarrituta, kolektibo bakoitzeko ordezkariak proposamen bateratua adostu beharko dute. Online bertsioan dago.
- **Aldatzeko ezagutu:** UNICEFen hezkuntza-ikuspegiari buruzko lan-taldeen eztabaida aberasteko informazioa, gida honen amaieran barnean hartzen dena.

Hemendik eskura ditzakezue: www.enredate.org/educacionenderechos



Nola antolatu talde-lana?

Pertsona interesdunen parte-hartzea erraz dezazuen proposatzen dizuegu. Horretarako, berdintasun-egoeran iritziak gaineratzeko aukera emango duten taldeak sortzea gomendatzen dizuegu. Moderatzaile batek eta parte-hartzaileek osatuko dute talde bakoitza.

Moderatzaileak koordinatu beharko du lan-saioen garapena eta kontrolatu beharko ditu denborak. Taldeko partaideak benetan parte-hartzera motibatu beharko ditu, eta ezin ditu iritziak edo ekarpenak gaineratu. Moderatzailea talde bakoitzeko kideek hauta dezaten gomendatzen da.

Parte-hartzaileak, bestetik, prozesuan parte hartzeko interesa adierazi duten pertsona guztiak dira, gizabanako gisa hartzen dute parte eta bost talde horietako bakoitzari dagozkion kolektiboen barruan.

Taldeak tamaina egokia izan behar du; taldekide guztiek hitz egiteko aukera izan dezaten eta gainerako guztiei entzun ahal izan diezaieten, balizko iritzi-trukea eta eztabaida erraztuz. Ratorik egokiena 10-15 pertsonakoa da. Parte hartzeko interesa duten pertsonen kopurua handia bada, familien edo ikasleen aldetik esate baterako, kolektibo bakoitzerako lan-talde bereiziak egitea gomendatzen dizuegu.

■ IKASLEEN TALDEA

Hasierako autoebaluazioko eta diagnostikoko prozesua gidatzen duten irakasleek baloratu beharko dute ikasle-taldearen bileretan haiek bertaratzea beharrezkoa den edo ez. Edonola ere, Lehen Hezkuntzako ikasleen taldeetan beti bertaratzea komeni da. DBHko eta goi-mailako ikasketetako taldeetan, irakasleak bertaratzekotan, saio bakoitzaren hasieran eta amaieran soilik bertaratu beharko dute.

Ikasle-taldeetan moderatzaile bat egoteaz gain, komoderatzaile bat ere egotea komeni da. Egiteko hori betetzen duten ikasleek, lehentasunez, ikastetxea ezagutu beharko dute. Horrenbestez, interesgarria litzateke ikastetxeko batzordeetakoren bateko kide izatea, hala nola Eskola Kontseiluko kide izatea, Ikastetxeko Ordezkarien Batzordeko kide izatea, eta abar.



Ebalua ezazu zure ikastetxea

Nola garatzen dira lan-taldeen bilerak?

Bost lan-taldeetako bakoitzak bilera bat egin beharko du eta bilera horretan hau egitea gomendatzen da:

- Moderatzaileak lan-saioa bertaratzen diren guztiei harrera eta agurra egingo die.
- Parte-hartzaileak zirkuluan eseriko dira, eta, guztiak bere lekuan daudenean, emango zaio hasiera talde-saioari.
- Taldeko kide guztiek euren burua aurkeztu beharko dute.
- Moderatzaileak saioaren helburuak azalduko ditu eta arauak gogoraraziko ditu:
 - a. Saioaren iraupena.
 - b. Berdintasun-egoeran egiten den parte-hartze libreko giroa.
 - c. Gainerakoen iritziekiko errespetua.
- Moderatzaileak saioa gidatu beharko du, hitz egiteko txandak errespetaraziko ditu eta denborak kontrolatuko ditu.

Bilera horretarako honako sekuentzia hau proposatzen dizuegu:

1. bilera: autoebaluazioa eta hobekuntza-proposamena

1. Taldeko parte-hartzaileen aurkezpena.
2. Saioak helburuen arabera egitea:
 - Onlineko galdera-sorta bete beharko da.
 - Hobekuntzako proposamen bateratua egin beharko da (ereduaren arabera).
- Hurrengo bileran taldea ordezkatzuko duen pertsona hautatuko da.
3. Parte-hartzea eskertzea.
4. Itxiera eta agurra.

IRAUPENA: 2 ORDU

BALIABIDEAK:

- Onlineko galdera-sorta.
- Hobekuntza-proposamena.

Taldeko bilera egin ostean, taldeetako ordezkariak bigarren bilera bat egin beharko dute, honako sekuentzia honekin:

2. bilera: autodiagnostikoa eta erabakiak hartzea

1. Taldeetako ordezkarien aurkezpena.
2. Saioak helburuen arabera egitea:
 - Ordezkari bakoitzak diagnostikoari buruzko taldearen ondorioak azalduko ditu.
 - Ordezkari bakoitzak taldearen hobekuntza-proposamena azaldu beharko du.
 - Hobekuntza-proposamen bateratua egin beharko da (ereduaren arabera).
3. Parte-hartzea eskertzea.
4. Itxiera eta agurra.

IRAUPENA: 2 ORDU

BALIABIDEAK:

- Diagnostikoko termometroa.
- Hobekuntza-dokumentua..

Behin guztia eginda, zer egingo dugu?

Zailena egin duzue. Orain abian jartzea besterik ez zaizue falta. UNICEFek bidaltzen dizuen gonbidapena, berez, ikastetxeak prozesua modu autonomoan egin ahal izateko moduan pentsatu da. Haatik, hobekuntza-proposamenak haurren eskubideen ikuspegiarekin inplementatzeko moduari buruzko aholkuak jaso nahi badituzue, gurekin harremanetan jar zaitezke honako webgunearen bitartez: www.enredate.org/eskubideetanoinarritutakohezkuntza



Aldatzeko ezagutu

Atal honetan UNICEFen hezkuntza-ikuspegiari buruzko informazioa ematen dizugu, eztabaida-taldeen solasaldia aberastearren.

Zer da Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena?



Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak gizarte-aldaketako prozesu bat jarri du abian; iraultza isil bat abiarazi du. Mundu osoan milaka ekimen eragingo dituen prozesu hori etorkizuneko belaunaldietarako aldaketa handiak ari da sortzen.

Nazioarteko erkidegoak, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren bitartez, 1989an onartu zuen historian gehien berretsi den giza eskubideen ituna: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Itun horren parte diren Estatuak haien lege nazionalak Hitzarmenera egokitzera behartuta daude.

Ekarpen nagusietako batzuk hauek dira:

>> Haurrak zuzenbideko subjektu dira.

>> “Haur” kontzeptua 0 urtetik 18 urtera arte zabalduko da.

>> Haurren etorkizunaren inguruan helduek hartzen duten edozein erabakitan, beti nagusitu beharko da haurraren interes gorenari.

>> Eskubide bat ez da beste bat baino garrantzitsuagoa, eta eskubide guztiak mundu osoan bete behar dira.

>> Estatuak dute haurren eskubideak haien lurraldean zein haien lurraldeaz kanpo betetzearen ardura (nazioarteko elkarlanaren bitartez).

>> Haurren biziraupenarekin, bazterkerien gabeziarekin, erabateko garapen fisiko, mental eta sozialarekin, eta haurren parte-hartzearekin lotzen diren eskubide guztiak hartzen ditu barnean.

>> Haurren Eskubideen Batzordeak aldian behin ebaluatuko ditu Estatuak, Estatuetan izandako aurrerapenak neurtzeko.

Legezko alderdiez harantzago, Hitzarmenak eskaintzen digun horizontean haurren eskubideak oinarri etiko iraunkor bihurtuko dira, haurrenganako –kolektiborik kalteberena den aldetik– nazioarteko jokabide-arau bihurtuko dira. Hortaz, aurrerapen itzela izango da Hitzarmena goitik behera betetzea lortzen duten gizarteetarako.

■ Zergatik haurren eskubideetarako berariazko hitzarmena bat?

Pertsona guztiek izaki guztiz mendeko gisa hasten dute bizitza. Haurrek eta nerabeek helduen zaintza eta orientazioa behar dute independente izan arte bilakatzeko: arreta bereziko eskubidea dute.

Haurrak gizabanakoak dira. Ez dira gurasoen edo Estatuaren jabetzakoak. Era berean, ez dira “garatzen ari diren pertsona” hutsak. Prozesu politikoan gutxitan entzuten dira eta aintzat hartzen dira haurren iritziak. Adingabeek, oro har, ez dute bozkatzeko eta ez dute erabakietan beste inola parte hartzen.

Gobernuen neurriek, edo omisioek, eragin handiagoa izan dezakete haurrengan beste edozein kolektiborengan baino.

Gizartean izan den aldaketa asko neurritz kanpoko eragina izaten ari da haurrengan, eta askotan eragin negatiboa izaten ari da. Familia-egituraren aldaketa, globalizazioa, lan-eredu aldakorak edo krisialdia gisako faktoreek eragin handia dute haurrengan.

Haurren eta nerabeen garapen osasuntsua funtsezkoa da gizartearen etorkizuneko ongizaterako. Hurrei arreta ez jartzearen kostuak izugarriak dira gizartearentzat.



■ Jendetasuna eta hiritartasuna

Oinarrizko gaitasun horrek dagokigun gizarte-errealitatea ulertzeko ahalmena ematen du, eta elkarlanean eta bizikidetzan jardutera eta, gizarte plural batean, hiritartasun demokratikoa baliatzera animatzen du. Gainera, gizartearen hobekuntzan konpromisoa hartzen laguntzen du. Ezagutza eta trebetasun konplexuak integratuta daude bertan: parte-hartzea, erabakiak hartzea, hainbat portaerataraz egokitzea, hartutako erabakietako ardura, eta abar.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak haurrak eta nerabeak eskubide osoko hiritar gisa onartzen ditu, hemen eta orain, eta ez soilik biharko etorkizuneko hiritar gisa. Haurren eskubideetan oinarritzen den hezkuntzak ikasleen gizarte-gaitasunaren eta hiritar-gaitasunaren

Haurren parte-hartzea

Parte-hartzea hezkuntza-prozesu bat da eta, hala den aldetik, heziketaren eta esperientziaren bidez ikasten da. Askotan erabiltzen da eskailera baten irudia –Roger Hart-ek (1992) egin zuen moduan– haurrek eta nerabeek ekimen batean izan dezaketen parte-hartzearen maila azaltzeko. Zortzi maila dituen eskailera batean, azpialdeko lehen hiru mailagainak haurren benetako parte-hartze aktiboa ez duten proiektuei dagokie. Eskaileraren goialdeko bost mailagainek benetako parte-hartzearen gero eta maila handiagoa irudikatzen dute. Azken horietako bakoitza egokia izan daiteke une jakin batean, adinaren arabera, autonomia moralaren garapenaren arabera eta parte hartzeko ohituren arabera.

**PARTE
HARTZEAREN
ESKAILERA**



Haurren eta gazteen hasierako erabakia, helduekin partekatua. Haurrek eta gazteek haiek diseinatu eta zuzendu dituzten proiektuetan helduak txertatzen dituztenean, ezartzen da parte-hartzearen azken maila hau.

Haurrek eta gazteek hasi eta zuzenduak. Maila honetan, haurrak haien kabuz sortzeko eta garatzeko prestatuta dauden jarduerak barnean hartzen dira. Jarduera horiek, batzuetan, noizbehinkakoak dira eta arian-arian helduen zuzendaritzatik kanpo garatzeko gauza diren elkarlaneko jolas gisa lantzen dira; izatez, helduek, batzuetan, ez dakite zuzen erantzuten haurrengandik eta gazteengandik sortzen diren ekimenei.

Haurrekin erabakiak partekatzen dituzten helduek hasitakoak. Maila hau parte-hartzearen mailaren hasieratzat jo daiteke; izatez, proiektuak helduek hasi badituzte ere, haurrek eta gazteek haiekin partekatzen dute erabakiak hartzeko prozesua. Proiektuak erkidegoari parte-hartze handia ahalbidetzen dionean eta, horrela, proiektuaren garapena, ezarpena eta ebaluazioa errazten denean ematen zaio hasiera prozesuari.

Kontsultatuak eta informatuak. Proiektua helduek diseinatu eta garatu dute, baina haurren iritzia aintzat hartzen da erabakiak hartzeko prozesu osoan. Maila honetan, haurrek proiektuaren helburuak, oro har, ezagutzen dituzte, baita esku-hartze partikularra ere.

Orientatuak baina informatuak. Haurrek programa jakin bateko jardueretan parte hartzea ahalbidetu behar du maila horrek, nahiz eta zuzenean parte ez hartu plangintzan, betiere proiektuaren helburuen, oro har, eta haien esku-hartzearen jakitun badira.

Sinbolismoa. Haurrei entzun eta haien iritzia eskatzen zaien egoerak dira, betiere gaiari buruzko kontzeptu adierazgarriak argitu gabe eta haien jarrera aditzera eman gabe edo ustez ordezkatzan dituzten berdinkideen taldeari kontsultatu gabe. Maila horretan, eta parte-hartzearen zeinuaren mende, haurrak xede gisa erabiltzen dira, eta haien esku-hartzeak helduek baldintzatuta daude –helduak kezkatuago daude jardueraren oihartzunarekin jardueraren edukiarekin baino–.

Apaingarria. Jarduera jakin bat “apaintzeko” edo “animatzeko” besterik ez da planteatzen haurren agerpena. Haurtzarora iragarkitza hartzen duen kontzeptua. Maila horretan haurrak ekintza zeharka sendotzeko erabiltzen dira.

Manipulazioa. Haurrek aztergai diren gaiak ezagutzen eta ulertzen ez dituztenean. Helduek haurrak erabiltzen dituztenean helduengan zuzenean eragina duten kausak sustatzeko, baina horiek uler ditzaten lagundu gabe.

Aldatzeko ezagutu

Parte-hartzearen onurak

Gaur egun gizartearen parte-hartzea pertsonen eta erkidegoen garapenerako lagungarria den oso tresna garrantzitsutzat jotzen da, eta arlo horretan adostasun handia dago. Parte-hartzeak gizarte-kohesioko prozesuak errazten ditu, eta pertsonen eta haien gizarte-ingurunearen ongizatea hobetzen du. Gizarte-ekimen batean modu aktiboan parte hartzen duten haurrek zabaldu egiten dute haien erkidegoko eskubideei, ardurei eta betebeharrei buruzko ikuspegia. Parte-hartzea ikas daitekeen eta ikasi behar den aukera bat da. Hauek dira onurarik garrantzizkoenak:

- **Haurrengan**, gaitasun eta ahalmen pertsonalak hobetzen dituzte. Autonomia, sormena eta izpiritu kritikoa sustatzen du.
- **Ikasgelan**, prozesu proaktiboak garatzen dira erabakiak hartzeko garaian. Ikasketak trinkoagoak dira, eta gogoeta egiteko eta hautatzeko gaitasunak hobetzen dira.
- **Ikastetxean**, gizarte-kohesioko prozesuak eta, gatazkak ebaztean, bitartekaritzako prozesuak errazten dituzte. Ikastetxeko giroa hobetzen da, eta entzute aktiboko eta elkarriketako espazioa sustatzen da hezkuntza-erkidegoko kide guztien artean.
- **Ingurunean**, haurrak eta nerabeak hiritartzat hartzen dira. Erkidegoko kide aktibotzat hartuko dira, eta, hortaz, haien proiektuak eta iritziak azalduko dituzte eta haien betebeharrak eta ardurak beteko dituzte.

Parte-hartzearen arloko zenbait estrategia

Ondoren ikastetxeetan parte hartzeko prozesuak errazteko eta hobetzeko zenbait ekimen aurkeztuko ditugu:

- **Gelako biltzarrak**, ikasgelan aldeko eta kontrako egoerei buruzko gogoeta egin ahal izateko aukera ematen duen ingurunea sortzea ahalbidetzen dute. Haurrek erabakiak hartzeko aukera dute, betiere haien ikasketei eta curriculumari buruzkoak.
- **Ordezkarien biltzarrak**, ikastetxeko maila guztietako ordezkarien artean informazioa eta proposamenak transmititzea ahalbidetzen dute.
- **Ikastetxearen bizitzan nahastea**. Ikasleek ikasgelaren eta ikastetxearen antolamenduaren eta funtzionamenduaren hainbat arlotan dute ardura. Erabakiak hartzeko prozesuan hartzen dute parte, eta gero, horiek aplikatzean, beren erabakitzat jotzen dituzte. Garrantzi handia du erabakietan izan duten inplikazioa hautemangarria izateak, hots, ikasgelan eta ikastetxean ikusteak.
- **Talde-ikaskuntza**, ikaskuntza adierazgarriko esperientziak talde-dinamiken bitartez. Taldeko parte-hartzaileak irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren subjektu aktibo dira, eta ez ikaskuntzaren objektu huts. Ikasle guztien parte-hartze aktiboa hartzen du aintzat.
- **Haurren gizarte-arloko parte-hartzeari buruzko Mahaiak eta Batzordeak**, mahai eta batzorde horiek haurrek eta nerabeek haien erkidegoarekin lotzen diren alderdien inguruan lan egiteko eta erabakiak hartzeko espazioak dira.

Eskola-giroa

Eskolako ikaskuntza errazagoa da ongizate psikologikoko eta etikoko giroetan. Eskola-giro egokiaren bereizgarri dira pertsonen arteko harreman positiboa eta onarpen eta segurtasun emozionaleko sentimenduak. Errespetuzko balioak sustatzeak, beraz, erkidego barruko loturak errazten ditu, baita eskolako jarduera ere. Giro positiboak, bestalde, taldearekiko eta eskolarekiko identifikazioa eta pertinentzia sentimendua eta konpromisoa sustatzen du.

Nola lagun dezake Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak hori guztia lortzen?

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena –eta harekin lotzen den hezkuntza-ahalmena– erreferentea izan daiteke errealitate hori irakurtzeko eta ulertzeko. Kode partekatu den aldetik, harreman eta esperientzia komun egokitasuna interpretatzeko aukera ematen du, betiere haurrak taldearekiko eta erkidegoarekiko dituen ardurak bere gain hartzen dituen eskubideen ikuspegitik.

Horrela, Hitzarmenaren testua tresna egokia da eskola-giro ona errazteko honako 4 maila hauetan:

1. Haurren ongizatean.
2. kasgelan, taldearekin denbora zatirik handiena partekatzen den eta berdinkideen arteko loturak ezartzen den espazio komun gisa.
3. Ikastetxean, gizartearen eta erkidegoaren irudikapen gisa.
4. Ingurunean, bertan pertinentziako eta parte hartzeko espazioak sortzen dira.



Hiritartasun globala baliatzea

UNICEFek mundu-mailako elkartasuna, bakea, tolerantzia eta justizia soziala gisako balioak eta ingurumenaren inguruko jarrera egokiak sustatzen ditu neska-mutikoen eta gazteen garapenean. Horiek guztiak tresna bihurtzen dira balio horiek sustatzeko eta beren bizitzetan eta erkidegoetan aldaketak eragiteko, bai eskala txikian, baita orokorrean ere.

Azken helburua mundu-mailako hiritartasuna sustatzea da. Hezkuntzan ikuspuntu globala izatea oso lagungarria zaie neska-mutilei eta gazteei alderdi hauetaz jabetzeko: munduko lekuen artean dauden loturez, iraganeko eta momentuko gertaerek etorkizuna eratzeko moduz, eta gai sozialen, ekonomikoen, politikoen eta ingurumenekoen arteko loturez. Beren eskubideak eta erantzukizunak ezagutarazten zaizkie, aldaketa-prozesuan inplikazio aktiboa izatera bultzatzen ditu eta parte-hartze demokratikorako ohiturak garatzen ditu.

Haurren eskubideak ezagutzeko eta lantzeko prozesuan ikasleei parte hartzeko aukera eman behar zaie ikasleei, prozesuaren parte senti daitezen; izan ere, beraiei dagozkien eskubideak dira. Horrek besteen eta haien eskubideen ezagutza hobetzera zuzendutako autoestimua garatzea dakar, baita negoziatzeko eta gatazkak modu baketsuan ebazteko trebetasunen ikaskuntzarekin lotutako autoestimua garatzea ere. Horrez gain, irakasleen eta familien arteko elkarlana errazten duten egoerak eragiten dira. Horrela, balio partekatu eta unibertsal batzuekin bat egiten du eskola-erkidegoak eta eragile bakoitzari dagokion funtzioa identifikatzeaz gain, erkidegoaren beharrei erantzutea lortzen da.

Lankidetzak ikaskideen artean egon beharreko jarrera gisa eta herrialde garatuen eta ez hain garatuen arteko nazioarteko laguntza-sistema gisa ulertzen dugu. Elkarlanak pertsonen edo inplikaturik dauden eragileen dohainak eta gaitasunak baliatzea eta ahaleginak batzea bilatzen du, era horretara, sinergiak bilatu eta bete nahi diren helburuak errazago lortzeko. Lankidetzak, beraz, trebetasuna, jarrera pertsonala eta balioa ere bada, ez ekintza baten ondorio hutsa. Planeta honetako beste leku batekiko elkartasun gisa hemen saiatzea, beraz, elkarlanaren adibide ona da. Haurren parte-hartzea Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak aitortzen duen eskubide bat da. Parte-hartzeak informatua, borondatezkoa eta konprometitua izan behar du, eta, ahal den neurrian, beren erabaki eta ekimenak aurrera eramatea ahalbidetu behar die. Berdinkideen artean behar den bezala garatuz, emaitza akademikoak eta elkarbizitza modu positiboan eragiten dituen ahalegina da.

Ikaskuntza-prozesua

EZAGUTU

